

Caparrosoko makro-ustategiak adiskidetze ekitaldira deitu duen taldeei babesa emateko eskaera

SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA :: 26/03/2022

Solicitud de apoyo a los colectivos citados al acto de conciliación por la macrogranja de Caparroso

Valle de Odieta-HTN enpresak (**Caparrosoko makroustategiaren eta Soriako Noviercasen** proiektatu duten beste baten jabea) 14 elkartetako 15 pertsona **adiskidetze ekitaldi batera deitu ditu** martxoaren 30ean. Enpresak irainak eta kalumniak leporatzen dizkigu makroustategiaren egoerari buruzko informazioa zabaltzeagatik. [Zure babesa adierazteko inprimakira zuzenean joan...]

Bideoan talde guzkiak azaltzen dugu zergatik gaude egoera honetan.

Caparrosoko makroustategiaren egoerari buruzko informazioa zabaltzean **ustezko adierazpen iraingarriak egin izana leporatzen digu enpresak**. Zitazioaren arabera, enpresak uste du kolektiboak ustez bere izen onari kalte egin diezaiokeen informazioa zabaldu dugula, Nafarroako Parlamentuan 2021eko irailaren 10ean entregatu zen txosten bati erreferentzia eginez.

Txostenak 178 orrialde ditu, **gehienak dokumentu eta datu ofizialei dagozkienak**, eta 7 baino ez dira kolektiboek egindako orriak, zeintzuetan txostenaren gainerako edukia laburbiltzen den. Gainerako 171 orrialdeak hainbat erakunderen dokumentuak dira, hala nola Nafarroako Gobernuarenak, edo iturri ofizialen datuetan (Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentua) eta makroustategiak Administrazio Publikoaren beraren espediente administratiboen arabera egindako arau hausteetan oinarrituta egindako txostenak.

Txostena aurkeztu genuen taldeen asmoa **ingurumena defendatzea** zen, eta Martzilla eta Alesbesko bizilagunen **uraren kalitatea babestea**. Era berean, iritzi publikoaren eta gobernuen aurrean adierazi nahi genuen industria-ustiapeneko eredu horiek problematikoak, kutsatzaileak eta jasangaitzak direla.

Gure asmoa ingurumena defendatzea eta administrazio publikoei ingurumena babesteko betebeharra bete dezatela eskatzea izan arren, orain **prozesu judizial posible bati aurre egiteko beharrean** aurkitzen gara, adiskidetze ekintza kalumniak eta irainak egin izanagatik prozesu judizialaren atarikoak baita.

Ziur gaude egoera honek enpresaren estrategia bati erantzuten diola, gure **kolektiboak beldurtzeko** eta abeltzaintza eredu horrek dakartzan ondorioak ezagutu ez daitezen. Hori ez da gauza berria, enpresa askok **SLAPP izenez ezagutzen den estrategia** horretara jotzen baitute. Eragile boteretsuek, gehienetan enpresa handiek edo bulegoek, gai publikoen inguruan **irregulartasunen bat salatzen dutenak isilarazteko** aurkeztutako eskariak

dira. Eskaera horien biktima ohikoenak ekintzaileak, kazetari independenteak edo ikertzaileak dira, sistema demokratikoetan ezinbesteko zaintza funtzioa betetzen dutenak.

Industria-ustiapeneko abeltzaintza-ereduak ondorio oso larriak dakartza kokatuta dagoen ingurunerako.

Animalien aurkako tratu txarrei buruzko eztabaidaz harago, hainbat ondorio kaltegarri daude ingurumenean eta gizartean. Sortutako hondakin kopuru handiaren kudeaketaz ari gara, nitratoek eta beste elementu batzuek lurrak eta akuiferoak ezinbestean kutsatzeaz. Industria-eredu horrek nekazaritza-arloan erregai fosilekiko, ongarri inorganikoekiko eta antibiotikoekiko mendekotasunean sakontzen du, soja eta ganadua elikatzen duten beste monolaborantza batzuk landatzeko deforestazio-dinamikak mantentzen ditu, bai gure inguruan, bai munduko beste leku batzuetan. Eredu horrek enplegua sortu ordez, makro-ustiategietako landa-ingurunean bizi diren pertsonen bizitzak prekarizatzen ditu, baliabideak monopolizatzen ditu, eta epe ertainean ez du aberastasunik sortzen, galerak baizik.

Horregatik, **elikadura burujabetzan oinarritutako eredu**en alde egiten dugu, zikloak, baliabideak eta ondasun naturalak errespetatu eta zaintzen dituztenak, biodibertsitatea sustatzen dutenak eta merkaturatze-zirkuitu laburrak sortzen dituztenak. Larrialdi klimatiko baten atarian gaude, nazioarteko krisi ekonomiko betean, gero eta erregai fosil gutxiago dagoelako. Ez da sekretua lehortu urteak etorriko direla. Horregatik, gure ingurunea gutxi batzuen onura ekonomikoengatik hipotekatzeko arduragabekeria tamalgarria dela uste dugu, eta, beraz, informazioa gizarteratzen, sareak ehuntzen eta itxaropena eta inertzia iraunkorrak dakartzaten ereduak sustatzen jarraituko dugu.

Orain da garaia **erakusteko gizarte zibilak ingurumena zaintzen jarraitu behar** duela eta enpresa handi batek ere ez duela hori saihestuko. Orain, inoiz baino gehiago, Nafarroako talde eta pertsonen batasuna erakutsi behar dugu, beren interes ekonomikoak interes publikoen eta ingurumenekoen gainetik jarri nahi dituzten horrelako enpresen aurrean.

Honekin guztiarekin, aipatutako taldeei **[babesa adierazteko deia](#)** egiten dugu, eta iragartzen joango garen hurrengo ekitaldietan parte hartuz.

Sinatuta: adiskidetze-ekitaldira deitutako erakunde guztiak: Alnus, Marcilla Viva, Asamblea Soberanía Alimentaria, REAS Nafarroa, Asociación Hacendera, Compañía de las Tres Erres, Asociación Lurra, Ekologistak Martxan – Ecologistas en Acción, Urbizi Nueva Cultura del Agua, Etxalde Movimiento Social de Campesinas de Euskal Herria por la Soberanía Alimentaria y una Agricultura Duradera, Greenpeace, Landare, Mugarik Gabe Nafarroa Asociación para la Ayuda y Cooperación con los Pueblos del Sur, eta Sustrai Erakuntza Fundazioa.

Egingo ditugun eta dagoeneko baieztatuta dauden **ekintzak**, zure edo zuen erakundearen babesa adierazteko balio dezaketenak:

Martxoaren 26an, larunbata, 12:30ean, elkarretaratzea Foruen Monumentuaren aurrean (Sarasate pasealekua). **Martxoak 30**, asteazkena, 10:00etan, elkarretaratzea eta prentsaurrekoa Nafarroako Auzitegiaren aurrean (Elio Epailearen plaza, Iruñea).

Zurea, edo zure erakunde edo entitatearen babesa erakusteko, klikatu esteka honetan eta bete eskatutako datuak. Eskerrik asko!!

Abeltzaintza industrial STOP - Ez gaituzte isilduko

Caparrosoko makrogranjaren inguruan nitratoekin kutsatutako uraren laginak hartzen. Iturria: Greenpeace.

[Castellano]

14 asociaciones y 15 personas [hemos sido citadas a un acto de conciliación](#) el 30 de marzo por parte de la empresa propietaria de la **macrogranja de Caparroso** (Navarra) y de la proyectada para **Noviercas (Soria)**, Valle de Odieta - Hibridación Termosolar Navarra. [\[Ir directo al formulario donde expresar tu apoyo...\]](#)

La empresa **considera que hemos realizado declaraciones que pueden ser calumniosas e injuriosas** al difundir información sobre la situación de la macrogranja. Según la citación, la empresa cree que los colectivos hemos difundido información que presuntamente podría dañar su reputación, haciendo referencia a un informe que [se entregó en el Parlamento de Navarra](#) el pasado 10 de septiembre de 2021 y que presentamos también en rueda de prensa.

El informe consta de 178 páginas, que en **gran parte corresponden a documentos y datos oficiales**, mientras que son solo 7 las páginas elaboradas por los colectivos, en las que se resume el resto del contenido del informe. Las otras 171 páginas son documentos de diversas entidades, como el propio Gobierno de Navarra, o informes elaborados en base a datos de fuentes oficiales, como el Departamento de Medio ambiente del Gobierno de Navarra. Entre ellas se encuentran infracciones que la macrogranja habría cometido según expedientes administrativos de la propia administración pública.

La intención de los grupos que presentaron el informe era **defender el medio ambiente, y proteger la calidad del agua** de los vecinos y vecinas de Marcilla y Villafranca. Queríamos también poner de manifiesto ante la opinión pública y ante los gobiernos que estos modelos de explotación industrial, más allá del caso concreto, son problemáticos, contaminantes y poco o nada sostenibles.

Nuestra intención no ha sido otra que la de defender el medio ambiente y exigir a la administración que cumplan con su deber en la protección del mismo. Ahora **nos enfrentamos a un posible proceso judicial**, del cual este acto de conciliación sería el prólogo, que podría derivar en un proceso penal para las personas y colectivos citados al acto de conciliación.

Estamos convencidas de que esta situación responde a una **estrategia de la empresa para amedrentar a los colectivos** y así evitar que se conozcan las consecuencias que este modelo acarrea.

Esto no es algo nuevo, ya que numerosas empresas recurren a este tipo de [estrategias que se conocen como SLAPP](#). Se trata de demandas presentadas por actores poderosos,

generalmente grandes empresas o despachos, para **acallar a quienes denuncian alguna irregularidad** en relación a asuntos públicos. Las víctimas más habituales de estas demandas son activistas, periodistas independientes o investigadores, que desempeñan una función de vigilancia imprescindible en los sistemas democráticos.

El modelo ganadero de explotación industrial acarrea consecuencias muy concretas para el entorno en el que se ubica.

Más allá del debate sobre el maltrato animal, existen toda una serie de consecuencias ambientales y sociales nocivas. Hablamos de la gestión de la enorme cantidad de residuos generados, de la inevitable contaminación de tierras y acuíferos por nitratos y otros elementos.

Este modelo industrial ahonda en la dependencia agraria de los combustibles fósiles, de los fertilizantes y de los antibióticos, sostiene dinámicas de deforestación para el cultivo de soja y otros monocultivos que alimentan al ganado, tanto en nuestro entorno como en otras partes del mundo. Este modelo lejos de generar empleo, precariza las vidas de las personas que viven en el medio rural de las macro-explotaciones, monopoliza recursos, y a medio plazo no genera riqueza alguna sino pérdidas.

Por ello, **abogamos por modelos basados en la soberanía alimentaria**, que respetan y cuidan los ciclos, los recursos y los bienes naturales, que promueven la biodiversidad y generan circuitos de comercialización cortos. Estamos a las puertas de una emergencia climática, en plena crisis internacional y económica por la cada vez mayor escasez de combustibles fósiles. No es un secreto que vienen años de sequías. Por eso, creemos que hipotecar nuestro entorno para el beneficio económico de unos pocos es una irresponsabilidad lamentable, por lo que seguiremos socializando información, tejiendo redes y promoviendo modelos que traigan esperanza e inercias sostenibles.

Ahora más que nunca **debemos mostrar la unidad y la diversidad de los distintos grupos y personas** de Navarra y otras regiones, frente a este tipo de empresas que quiere hacer prevalecer sus intereses económicos por encima de los intereses públicos y medioambientales. También frente a las administraciones públicas que siguen dinámicas caducas en una huida hacia adelante, en vez de reaccionar y regular debidamente estas explotaciones para la defensa de los intereses comunes y públicos.

Con todo esto hacemos un **llamamiento a mostrar apoyo** a los colectivos, y a participar en los próximos eventos que iremos anunciando.

Firmado: todas las organizaciones llamadas al acto de conciliación: Alnus, Marcilla Viva, Asamblea Soberanía Alimentaria, REAS Nafarroa, Asociación Hacendera, Compañía de las Tres Erres, Asociación Lurra, Ekologistak Martxan - Ecologistas en Acción, Urbizi Nueva Cultura del Agua, Etxalde Movimiento Social de Campesinas de Euskal Herria por la Soberanía Alimentaria y una Agricultura Duradera, Greenpeace, Landare, Mugarik Gabe Nafarroa Asociación para la Ayuda y Cooperación con los Pueblos del Sur, y Fundación Sustrai Erakuntza.

Actividades que realizaremos y ya están confirmadas, que pueden servir para mostrar tu apoyo o el de vuestra organización:

Sábado 26 de marzo a las 12:30, concentración frente al Monumento a los Fueros (Paseo Sarasate). **Miércoles 30** marzo a las 10:00, concentración y rueda de prensa ante el edificio de la Audiencia Provincial (Plaza del Juez Elio, Iruñea).

<https://eh.lahaine.org/caparroso-makro-ustategiak-adiskidetze-ekitaldira>